

URKO MANTEROLA » SAGARDOAREN LAGUNAK ELKARTEKO KIDEA

«Benetako sagardozalea etortzen da Usurbilera»

Sagardo Eguna herriko jendearentzat herriko festak baino garrantzitsuagoa dela dio Urko Manterolak, eta gaineratu du astelehenean inor gutxi joaten dela lanera.

Jende asko bilduko da datorren igandean Usurbilen. Ohi bezala, Sagardo Egunak sagardozale ugari erakarriko ditu. Urko Manterola, Sagardoaren Lagunak elkarte-kidea, antolakuntza lanetan da bil aurtren ere.

Zenbateko garrantzia dauka Sagardo Egunak?

Herriko jendearentzat, herriko festak baino garrantzitsuagoa da. Sagardo Egunaren biharamunean, astelehenean, inor gutxi joaten da hemen lanera. Jaiegun bat gorde egiten dugu horretarako.

Zergatik da ezaguna?

Aurrenekoa izan zelako-edo. Eta igande goizean egiten denez, benetan sagardozalea dena etortzen da, eta ez parrandara bakarrik datozenak.

Zer helburu dauka?

Sortu zen garaian, 1982an, sagardotegiak larri zebiltzan. Batzuk itxita zeuden, besteak itxear... Botilako sagardoari indarra emateko sortu zen, batez ere. Kultura hori bultzatu nahi izan zen.

Orain aldatu egin al dira helburuak?

Gipuzkoako Sagardogile Elkartearen jarrera ikusita, baietz esango nuke. Ez daukate etortzeko gogorik. Orain dela 30 urte gure beharreen zeuden, eta onenak ginen. Baina orain ez daukate gure beharrik. Gure ustez, lan asko dago oraindik egiteko, eta jarraitu egin behar da.

Nolako etorkizuna dauka Sagardo Egunak?

Beste gauza bat izango da gero. Lehen ere izan ditugu horrelako gorabeherak, eta egin izan dugu aurrera. Okerrena da zortzi-bederatzi lagun bakarrik gaudela, eta batzuk urte asko daramatzagu. Nik neuk hamabi bat urte dara-



AITOR MANTEROLA

matzat lanean, eta nekatu egiten da bat.

Kanpoko sagardoa ere ekartzen duzue, ezta?

Urte batzuetan mundu guztikoak ekarri izan ditugu, Gipuzkoako sa-

gardoarekin batera. Bizkaitik ez dut uste inoiz etorri direnik, eta aurtren hemen izango dira. Galiziatik ere etorri izan dira.

Aurtren lehen aldiz gipuzkoarrak gubxiengo izango dira?

Bada, agian bai. Sagardogileen Elkartetik hiru-edo etorriko dira. Herriko baserritarrek ere egongo dira, zazpi bat etorriko dira, eta eskerak eman behar dizkiegu beraiei. Eta baserritarrek ez daukate ezer

irabazteko. Sagardotegiak, behintzat, publizitatea egiten dute.

Barter askotako sagardoa ekarri izan duzuela esan duzu. Leku bereziren batekoa dastatu ahal izan al du jendeak?

Errusiatik ekarri genuen bi urtean, eta aurtren Alemaniakoa hemen izango da. Ingelesak eta marokoarrak ere izan dira hemen. 25. urtean berezia egin genuen, eta orduan egon zen hemen kanpoko sagardo asko.

Estimaziorik ba al dute?

Ez da erraza izaten. Gijonen (Espainia) egiten da mundu guztiko sagardoaren festa, eta gu joan izan gara. Niretzat, edateko moduko bakarra Kanadakoa da.

Gogoan al duzu Sagardo Egun berezi bat?

Txarrekin gehiago akordatzeko naiz. Euria egin izan zigun egun haiek izan ziren txarrak. Azkenean hiru urtean larri ibili gara eguraldia zela eta. 25. urtean ez zigun euririk egin, eta harrezkero egin diren hiruretan estu ibili gara. Duela bi urte majo busti ginen denok. Eta ez daukagu nahikoa aterpepostu denak sartzeko.

Nola ikusten duzu sagardoaren ekoizpena?

Uste dut botilarena gorantz doala. Eusten bazaio etorkizuna hobea da, baina temperatura zaindu behar da. Jabetxeetan eta hotzegia ateratzen dute, ez da behar bezala zaintzen. Ardoaren temperatura egokian ateratzen dizute, baina sagardoa nekez. Zortzi-hamar gradutan egon behar du. Produktu merkea da, eta ez zaio behar bezalakoa balioa ematen.

Sagardoaren labela sortu behar dela aipatzen da. Zer iritziz duzu?

Asmoa ona da, baina bertako sagarra ez da urtero ateratzen, landareak urtero ez duelako ematen. Urte batzuetan sagar piloa egoten da, eta ez dute jakiten zer egin. Beste batzuetan, aldiz, gutxi egoten da.

Zuen elkarteak beste zer bait antolatzen al du urte osoan?

Lehen bai. Lan dezentegia egiten genuen, liburuak eta ateratzen genituen. Baina orain, lagun gutxi gaudete lan batzuetan sartzeko. Sagardo Eguna antolatzeke ere justu ibiltzen gara. Egunean bertan jende askok laguntzen du, 150 bat biltzen gara, baina aurreko lana egiteko gutxi izaten gara.



Usurbilgo Udala



Dastatu sagardoa giro euskaldun jatorrean
Usurbilen Sagardo eguna, maiatzaren 23an